

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA SAILA

3428

AGINDUA, 2023ko ekainaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2023ko apirilaren 25eko Agindua, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko irakasle funtzionarioen hainbat kidegotako, estatu mailako, lekualdatze-lehiaketako destinoen behin betiko esleipena, hau da, Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Katedradun eta Irakasleen, Musikako eta Arte Eszenikoetako Katedradun eta Irakasleen eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen kidegotako irakasle funtzionarioen lekualdatze-lehiaketako destinoen behin betiko esleipena.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko urriaren 7ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako unibertsitatez kanpoko irakasleen kidegotako langile funtzionarioen arteko estatu mailako lekualdatze-lehiaketarako deialdia egiten da (urriaren 14ko EHAA). Bertan Joseba Izagirre Zubimendi eta Julen Etxenike Etxeberria praktiketako funtzionario gisa parte hartu dute.

Hezkuntzako sailburuaren 2023ko apirilaren 25eko Aginduaren bidez, aipatutako lekualdatze-lehiaketako destinoen behin betiko esleipena argitaratu zen, eta Joseba Izagirre Zubimendi jaunak destinoa lortu zuen Azkoitiko Izarraitz Lanbide Heziketa LHIn, Fabrikazio Mekanikoko Antolamendua eta Proiektuak espezialitatean (2. hizkuntza-eskakizuna); Julen Etxenike Etxeberria jaunak, berriz, Tolosaldea BHIn lortu zuen destinoa, Sistema Elektrotekniko eta Automatikoak espezialitatean (2. hizkuntza-eskakizuna).

Aipatutako lekualdatze-lehiaketaren deialdiaren hamabigarren oinarrian, praktiketako funtzionarioei dagokienez, honako hau ezartzen da: «Dagokien destinoa praktika-fasea gainditzearen eta, ondorioz, karrerako funtzionario izendatzearen baldintzapean egongo da».

Praktikaldia amaitu ondoren, Joseba Izagirre Zubimendi eta Julen Etxenike Etxeberria jaun-andreak ez dituzte praktikaldiak gainditu.

Ondorioz, oinarri horretan aurreikusitakoaren arabera, eta eman zaizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

XEDATU DUT:

Aldatzea Hezkuntzako sailburuaren 2023ko apirilaren 25eko Agindua, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko irakasle funtzionarioen hainbat kidegotako, estatu mailako, lekualdatze-lehiaketako destinoen behin betiko esleipena, hau da, Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Katedradun eta Irakasleen, Musikako eta Arte Eszenikoetako Katedradun eta Irakasleen eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen kidegotako irakasle funtzionarioen lekualdatze-lehiaketako destinoen behin betiko esleipena. Hona hemen aldaketa:

- Indarrrik gabe uzten da Joseba Izagirre Zubimendi jaunari esleitutako destinoa, Azkoitiko Izarraitz Lanbide Heziketa LHIn, Fabrikazio Mekanikoko Antolamendua eta Proiektuak espezialitatean, 2. hizkuntza-eskakizuna.

2023ko uztailaren 17a, astelehena

– Indarrik gabe uzten da Julen Etxenike Etxeberria jaunari esleitutako destinoa, Tolosaldea BHI, Sistema Elektroteknikoak eta Automatikoak espezialitatea, 2. hizkuntza-eskakizuna.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 30a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.